

Ekitaldi ugari iragarri dira Sagardo Egunaren bueltan

Usurbildarrentzat hain berezia den urteko hitzordua ate joka dugu. XX-XII. Sagardo Eguna ospatuko da, maiatzaren 19an. Astebete barru beraz. Aurten, "1. Sagastiak Loretan" ospakizun sortaren barruan dator, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek antolatu duten jaialdia.

Ohi bezala, irekiera ekitaldiarekin abiatuko da Sagardo Eguna. Hortik aurrera, baserriko, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko eta labeldun edariak dastatzeko osteratxoa egin ahal izango da bazkal ordura arte, frontoi, Dema eta Askatasuna plazan. Musikaririk ez da faltako txaranga edota trikitaliarekin. Arratsaldean erromeria, Fun&Go taldearekin.

ERAKUSKETA ETA BASOEN SALMENTA

Sagardo Eguneko jaiak Kaxko osoa hartuko du bere baitan. Aurten, baita Sutegi ere. "Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa" bisitatzeko aukera izango da kultur etxeko aretoan, maiatzaren 16tik 19ra. Erakusketa zabalik dagoen tartean gainera, Sagardo Eguneko aurreko edizioetako edalontziak ere salgai jarriko dituzte antolatzaileek, 2 eurotan. Sagardo Egun guztietako edalontzien bilduma osoa ere erosi ahal izango da, 40 euroren truke.

■ Maiatzak 16-19. Ostegunetik igandera, Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa Sutegin. Maiatzak 16-17, 18:00-20:00. Maiatzak 18-19, 10:00-14:00.

SAGARDO EGUNEAN, KARPA MIKEL LABOAN

Aurreko urteetan, Sagardo Egunez Mikel Laboa plazan kokatu izan den txosna aurre-



"Usurbilgo baserrietako dolareen argazki erakusketa" irekiko da maiatzaren 16an Sutegin. Aurreko edizioetako basoak salgai izango dira erakusketa egunetan.

ko gunea indartu asmo dute aurten, Ernai gazte antolakundeak eta Herrirak. Karpak jarriko dituzte maiatzaren 19an, eta bertan, goizeko 11:00etan hasita, egun osoan zehar ekitaldi desberdinak izango dira. Edatekoaz gain jatekoa aurten, presoen esku-bideen aldeko ekitaldia eguerdian, musika emanaldiak arratsalde eta iluntze partean...

■ XXXII. Sagardo Eguna: Goiz guztian zehar, txaranga eta trikitaliak kaleetan zehar.

■ 11:30 Irekiera. Baserriko, Labeleko eta Gipuzkoako Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera. Honetaz gain, pintxo aukera zabala.

■ Goiz guztian, txaranga eta trikitaliak kaleetan zehar.

■ 17:00 Erromeria Fun&Go taldearekin.

■ Arratsaldean ere, txaranga.

■ 11:00etatik aurrera, Herrirak eta Ernaik antolaturiko karpa gunea Mikel Laboa plazan: jan edana, musika, presoen esku-bideen aldeko ekitaldia...

■ Egun osoz "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa Sutegin.

BEZPERAN, SARIAAUNDI BASERRIRA BISITA GIDATUA

Sagardo Egunaren bezperan, Aginagako Sariaaundi baserri- ra bisita gidatua antolatu da. Berreskuratutako XVI. mendeko dolare-baserrira da Sariaaundi. Bertako berri emango dute, Jakoba Errekondo paisajistak eta Luis Alberdi arkitektoak. 17:00etan hasiko da bisita gidatua. Maiatzaren 17ra arte, telefonoz deitu NOAUA!ra (943 360 321), bisita egitera zatzozela jakinarazteko. Hartara, bisita osteko lunch-a neurrikoa izan dadin.

BAZKARIA SAN IXIDRO EGUNEAN

"1. Sagastiak Loretan" ospakizunaren baitan txertatu dute aurtengo San Ixidro eguna. Hauxe egitaraua:

■ 10:30 Meza Salvatore Elizan. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.

■ 14:30 Bazkaria Artzabalen. Txartelak Alkartasuna Kooperatiban salgai, maiatzaren 11ra arte.

■ 18:30 Herriko erraldoi konpartsarekin pintxo poteoa.